

Gure helburuetako bat, aipatutako bi motatako bezeroek gure enpresa ondo ikustea da, hau da, beraien gustukoa izatea. Horregatik hauek gure enpresaren izena ezagututa, guri buruz ongi pentsatzea nahi dugu; ongi daudela gure enpresarekin esatea, bai prezioarekiko eta bai kalitatearekiko. Lehen aipatu bezala, hasieran enpresa txikia izango denez, ez ditugu bezero asko edukiko. Hala ere, enpresa handitzen doan heinean, bezero gehiago edukitzea espero dugu eta hauek normalean finkoak izango dira, eta mota guztietakoak, famili handietatik, banakoetaraino. Aipatu bezala, hainbat baliabide ditugu bezeroekin komunikatzeko. Beraz esan dezakegu gurekin kontaktuan jarri nahi izan ez gero ordenagailua hartu besterik ez dute, izan ere enpresako korreoa eta webgunea ditugu.